Rimmel

Koldo Izagirre

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2006 Koldo Izagirre
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2006ko azaroa
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

HEZUR ONDOKO MAMI

EGUNAREN ERDITZEA

Oriana Fallaciren liburutik burua jaso gabe
mintzo zaio aldiro praktiketako erizaina
lasai neska, lasai! jasan behar du
tantaz tantakoaren bosgarren orduan
ez du nahi eskua hartu edo ilea uki diezaiodan
lasaigarria dela esan ziguten ikastarokoek
eta hala ere eguna zabalduko du

«isiltasuna erregutzen da»

eguna zabalduko du eguna zabalduko du
taldea bildu da tokologoaren inguruan
nalgas entzun dut
horixe esan dutela eginen nuke
hizkera profesionalera iristen ez den kexadura
lanak edukiko dituztela halako zerbait
batekoz bestera dator bizitza

«eskerrik asko ez erretzeagatik»

emakume sendoa da argitu didate
eta ez entzuna egin dute nik zesarea aipatutakoan
ez naute gomitatu erditzearen lekuko harro izatera
lasai! entzun dut nik ere maskarillaren atzetik
eguna zabalduko du eguna zabalduko du
esku profilaktikoen balleta begian
ate guztiak ikaragarri isilik itxi baino lehen

«makina honek ez du itzulkinik ematen»

lau edo bost urteren buruan hedatu zen epidurala
eta Orwellen tituluarena zen otsailak
egun berria zabaldu zuen arren
beti bezala zekarten egunkariek bizitza
batekoz bestera

ESTIMUA

telefonoa ezkonberriz jantzia dute
erizainen eta gaueko laguntzaileen eskaintzek
harrigarria dirudi baina badabil
ama-umeak ongi daudela jaio zarela alegia
aiton-amonei senideei zenbait laguni

—muttikoa ere ongi beraz?

eta kostar jatorra banintz
mielga etorri zarela esan behar nuke
«neska jaioten danean
mielga jaio dala esaten dakie Ondarroan»

—baina ez al zetorren muttikoa?

«selazeoen familiako arraina
ezkatarik gabea, jangarria
baina estimu apurrekoa»

—ortzadarraren azpitik pasatu da ordea!

eta ez du ez dute konprenitzen
nola sortu zaren
ekografiek agintzen zutenaren batekoz bestera
zer edo zertarako balio dute
gure herri-jakintzaren bilduma ederrek

—bat ere ez baino gehiago da behintzat...

adio lehorra egin diot
amaren seme bazina bezala maiteko zaituenari
zergatik ordea zakarra naiz
guk ere sineskeriak irakatsiko dizkinagu
eta ez iraganekoak
erne ibili beharko dun gurekin
papardo polit horrek

LEHEN
AURREZ AURREKOA

Zenbat bide ez ote dut ibili zurekin
zenbat ibili ez ote dut egin zurekin
elkarri nora galdetzeko beharrik gabe
helburu zehatzen pagadian

zenbat itsaso ez ote dut harrotu zurekin
egia kaltegarrienen bila
zeure heldutasuna onartzeko prest
neure iritzietan behaztopa eginik

zenbat kantu berri ez ote dut sortu zurekin
Etxahunek bezain malerusik
zuk irri egiten zenueneko gardentasunaz
bakardade batetik besterako ihesietan

zenbat liburu ez ote dut irakurri zurekin
zazpi hizkuntza ezezagunetan
mito zirtzilak iraultza lizunduak ikasiz
porrot berriak antolatzeko

zenbat borroka ez ote dut egin zurekin
zure aurka zure alde
nagitasunaren eskubidea eztabaidagai
adibidez hiru ilargiko gauetan

zenbat zenbat ez ote dut ikasi zurekin
uste ez nituen zoratzekoak eman dizkidazu
proposatzen nizkizun jolas ergelak utzita
naizen ez bezalako gurasoa izateraino

eta orain hemen zaude
hezur ondoko mami
banaiz esanez
hi ba ote haiz galdezka

zenbat amets egin behar dugun elkarrekin!

SORTZEAREN MENTURA

egun besoan eduki zaitut
alaba eduki dut egun besoan
erizainek irribarre egin didate
ene gatza ene kurkubita
eta erre batean hasi zarelako marruka
irribarrez kendu didate kontuz
kontuz esan diet papardo hau itsasora

zertarako haur berri bat mundura?
lagunen galderak nolako mindura!
ez daukat beste erantzunik:
berak nahi zuen, guk genuen gura!

bazen bat garrasika hasi dena
atera behar izan du aldameneko ohekoak
bazen bat agoantatu ez duena
salatu du eta orduan zure amak
malkoak ezin leherturik
neu nintzen

zertarako haur berri bat mundura?
lagunen galderak nolako mindura!
ez daukat beste erantzunik:
berak nahi zuen, guk genuen gura!

tornuari eragin dio
sehaska sortu da paretatik zu eskainiz
hartu zaitu
bular gainean ipini zaitu lo
zure berotasuna behar du
zure taupaden metronomoa behar du
zure ama jaioberria da

zertarako haur berri bat mundura?
ez daukat beste erantzunik:
berak nahi zuen, guk genuen gura
berarekin sortzearen mentura

ERRUKARRIAK

lehen geldialdia farmazian
pisuaren grazian
zure librak hartzeko osasun liburuan
zaindu behar zaitugu hazian
—gaxua!
esan du botikariak begia anpuluan

bigarren geldialdia espaloian
etxe ondoko kantoian
auzuneko Amona Lisa hurbildu zaigu
kolaioak zeuzkan egun balkoian
—gaxua!
esan du katuzaleak agintari —zaindu!

hirugarren geldialdia ezkaratzean
itxiaren atzean
finantza albisteak zintzo banatzen zen ari
burua sartu du ohatzean
—gaxua!
esan du gozoro postariak lausengari

laugarren geldialdia eskaileran
talka egiteko eran
bigarrenekoa zetorren behera jauzika
nahiz nahiago duen gazteleran
—gaxua!
esan du bulegari tenteak zu ikusita

bosgarren galdealdia etxean
krisiaren ertzean
aurrekoa genuen atean, ezin uka
ba zer moduz gauden, hainbestean
—gaxua!
esan du erretretatu gazteak eztulka

halako batean utzi zaitugu sehaskan
ez musu eta ez laztan
harriz harri jausi gara maindire matazan
zer dun hori, ixo, zure arnasa gurean joz
gurasoena baino hasperen handiagoz
—gaxuak!
esan diogu elkarri beldur harro ados

AITA ZUREAK

hori ere lortu duzu
ama kantari jartzea

nik baino hobeki egiten du ziztu
baina ziztu luze fina
artzainak zakurrari egiten dionaren antzekoa
eta ahots ederra dauka
zaratarik gabe hegaldatzen zaizkio hitzak

belarri txarra daukala dio
egia balitz
egia balitz
nik bera maite dudan bezala
eginen luke berak kantuan:
letra guztiak buruz jakinda
baina huts eginez doinuan

zuretzako gordeak zeuzkan
orain jabetu naiz
ama kantari entzundakoan

zeu kantuan hasi artean
hasi artean
hasi artean
asko dizkiozu irakatsiko
ama kantari jarri duzu
bularra hartzen diozulako
masail beteko esne-musu

aita zureak diru asko du
ama bidean salduta...

oin puntetan egin dut sukaldera
egarriak puskatzen gelditu naiz jesarririk
ezertarako zainik gabe
frigorifikoan itsatsi sindikatuaren ikurrari beha
ariko banintz
ariko banintz
txanponak kontatzen ariko banintz bezain zeken

ez dut zin egin beharrik
sehaska kantu berriak dizkizut asmatuko
ene esne-musu
berri eta sehaskako

berri eta sehaskako baina bular bakoak

bular bakoak

ene esne-musu

JELOSIA

katua jandakoa ni baldin banaiz
zergatik zara zu
gure etxeko laztan-zale nagusia?

katua jandakoa ni baldin banaiz
zergatik zara zu
maukari lazgarriena
epelik ere ura maite ez duen
teilatuetako gaukaria?

katua jandakoa ni baldin banaiz
zergatik zara zu
esnea kendu ezin zaiona
harramazka politenen marrazlea
etxeko saguon soinularia?

katua jandakoa ni baldin banaiz
zergatik zara zu
egun argiko lotia
oinik busti gabeko arrainkaria
ene bihotzaren lapurra?

ni baldin banaiz katua jandakoa
zergatik zara zu
esker txarreko miñiñi bezalakoa?

EZTUL BAT GAUAREN ERDIAN

Zer izan dun hori? / ez duk entzun?
zangoak hutsik
korridoreko argia zure gelan apal
hotza egiten din! / hago isilik!

begiek 47 segundo behar dute
erretina iluntasun honetara ohitzeko

arnasa hartzen al din? / hago isilik!
ahuspez jarriko bagenu?
beste eztul bat
o, bizirik zagon! / hiri esker!

LO

laztana
ez egin lo, ez egin lo

zuk hartzen baduzu lo
zakur handia etorriko da
zakur handia etorriko da
zuk hartzen baduzu lo

ez egin lo
laztana
ez egin lo

zakur handia etortzen bada
nork dizkio kenduko
nork dizkio kenduko
ahoko zorrotzak banan bana?

ez egin lo, ez egin lo
laztana

EDITIO PRINCEPS

—berdin-berdina da!

barretxo ironiko bat egiten dut
jendetasuna behar da
ez dakizu nola amorratzen naizen
ene antza duzula entzuten dudanean
ironiko hitzak esan nahi du zera...

—hobetuko du!

horixe nire erantzuna
ene antza duzula entzuten dudanean
jendetasuna behar da
barretxo urduria egiten dute
jakina, ni baino askoz politagoa zarela
entzuten dut berehala

—ez da zaila!

eta jendetasuna hankapean itzalita
bultzakiari abante eraginez

aitzina jotzen dut arranguratua
lortuko ote dugun gure haurra
inoren bertsio hobetua izan ez izatea
izan behar duzu
esan dezadan ironia handirik gabe

LAU PATAKA

tuntuna:
arrainak ez dira txalupetan bizi
burujabek esan nahi du jabegabe
egunero da bizian behin
nola demontre konpontzen ziren zazpi astoren gainean
zangoak itsuak dira
euskaraz hitz egitea ez da hitz egitea
euskaraz hitz egitea euskaraz hitz egitea da

tuntuna:
zubiak azpitik pasa litezke
keak ez du erretzen
eskuek ez dakite entzuten
azkazalak ere jaten dira
astoek ez dakite erdaraz
oinezkook ezkerretik joan behar dugu
ongi eginen duzu guardasola etxe barruan zabaldurik
zakurra gizonaren lagunik onena da
zu ez zara gizona
gizentzen duen gizonarena

tuntuna:
okerra badabil
mailak igaiteko dira mailak jaisteko dira
zuriak eta beltzak ikusteko ez da mendira joan beharrik
ogi hutsak ez du asetzen
mamia ere behar du
ez harria gorde eta eskua luzatu
egizu beti etxea teilatutik gora

kutuna:
bide luzea daukan eta ikasten ahal dun oinez!

BEKOZKOEN INTERPRETAZIOA

mahaian lotzeko aulkitxoa erosi dute
laster sartu beharko ditut eskuak babarrunetan
argazki gogoangarriak egin diezazkidaten

ez zait ergelkeria bat gehiago sartzen buruan
baina ez dut aurkitzen neure lehen hitza
gozopoto hauek jotzea merezi duten harria

haurtzaindegia aipatu dio auzoari amak
milioika urte dira titia kendu zidala
eginen nuke uste duela ez didala ezer zor

aita izan behar dudana ezin dut ikusi
lo hartuarena egiten dut musuka ez nazan
bere ametsetara eraman nahi nau

hauek margotu zuten nire gela pozak zoratzen
bizi osoan izanen naiz naizenen alaba?
ez ahal dute, baldinbaite, beste haurrik ekarriko!

HASPEREN

Zelako adur onekoa zaren, haurra!
hogeitabatgarren mendean emaztetuko zara!

jakinen bazenu! kontatuko banizu!
nolako mendea, hogeigarrena!
ez, ez dizut kontatuko!
ikasiko dituzu, eta ez dituzu sinesten ahalko!

baina saiatu ginen!
eta azken mahats alea arte saiatuko gara!
nolako amorrua!
ezin berorik ekarri sute handienetarik!

hogeitabatgarren mendea...!
mila gauen hurrengo gaua!

utopiak ez dira gauzatuko! emakia sortuko da!
rimmel apur bat begian! mahats berria hortzartean!
amazona izanen zara!
ez da suterik beharko bihotzak garbitzeko!
etorkizunera iritsiko zarete!

hogeitabatgarren mendea...!

zu jaio ondoko lehen mendea!

NOLA JASO OTE ZUEN HARRIA TRIKUAK?

KONTUZ

katilua bete
kontuz
kontakatilu
zenbat katilu?
bat bi hiru

katilua bete
zirkilu?
bai bai bai
zirkiluetan iskilu!

katilua bete
iskilu?
bai bai bai
laster batean istilu!

katilua bete
istilu?
bai bai bai
hausteko zazpi ispilu!

katilua bete
ispilu?
ez ez ez
neure burua kikilu!

katilua bete
kontuz!
zenbat katilu?
lau bost sei
mila zatilu

METEOSAT

Zelako patu tristeko piztiak
euria egin behar duelarik
eguraldi txarra datorrela
iragartzen diguten mezulariak!

matxingorri
matxingorri
gaur eguzki
bihar euri!

gu aterkiaren azpian
erauntsiak lepoz lepo bilduak
elkarri diezazkiogun isilekoak solasta

eta inoiz baino libreago zu
hankabiko barraskiloa
putzuetan plisti guregana plasta

matxingorri
matxingorri
gaur eguzki
bihar euri!

zelako patu tristeko piztiak
euria datorrelarik
barraskiloen poza
ezin eraman duten mezalariak!

EZ NEGARRIK EGIN, HAURRA

paperean nekarren idatzia
eguneroko ipuina
eta papera maite ez duten piztia bi
irten zaizkit bidean
gelditu naute
galdetu didate:
—nora zoaz!
lamia baten bila nindoala esan diet
ez didate sinetsi
haserretu egin dira

ez, piztia horiek ez datoz zirkuetan

atzo bekokian ipini zenidan pegatina
kendu didate
—hustu sakelak!
eta beha eta beha egon dira paper hari
jakin behar zenuke
ez dutela piztia guztiek
irakurtzen ikasten

zer zen hura galdetu didate
ipuin bat zela erantzun diet
—ipuinik ez guri!

bai hurrengo batean esanen dizut zein diren
ikusten baldin baditugu

mila zatitan hautsi dute ipuina
eta zati guztiak jatera behartu naute

ez, makila horrekin ez dituzu uxatuko

eta orain ez naiz oroitzen
paper hartan zuretzat idatzia nekarren
eguneroko ipuinaz

ez negarrik egin, haurra:
mila ipuin berri
dauzkat barruan orain
zuri beldur eragiteko

BASERRITAR ASTRONOMOA

—zer da eguzkia?

—erlojua, orratzik gabe.

ASTRONOMO BASERRITARRA

—zer da ilargia?

—marmita betea.

ADISKIDE BI

—kontuz autoekin
ez zaitzatela zapaldu
bidea iragaiterakoan, esan zion zakurrak
—zaindu hire larrua

—eskerrik asko, laguna
erantzun zion katuak

—orain pobre bizi haiz
baina noizbait
txanponez betea egonen haiz
—ba ote?

ikusi duzu inoiz
zakur bat irri egiten?
orduantxe egin zuen irri zakurrak

—katanarrua eginen ditek
hire larruarekin, laguna!

eta honelaxe erantzun zion katuak biboteak harrotuz:

—hoa zakurraren salara!

LANGA GUZTIEN GAINETIK

bazoaz gure oinetakoetan
otsoaren oihanean barrena
gure oinetakoetan ontziratua
uraren azalean dantzan

—nor naiz?

bazoazke hortxe duzu mundua
alferrik lotuko zintuzkegu
zuk irrintzi egin eta
tximeleta guztiak
helduko lirateke aireko makulu zuretzat

—nor naiz?
—hartz panda bat?
—ez...!
—Patakon lapurra, bere zaldian!
—bai!

hotsa bai behintzat gure zapatek
lapurra
gure zapatek zure oinetan

—ezetz harrapatu!

baina perra handi horiek
maizegi egin behar izan dute
bide berdina
ez dakite besterako urratsik

—ez du balio!

a, Patakonen zaldiak
lapurra
atzekoz aurrera
janzten zituen eskalaproinak!

EZ DA ZURETZAKO

jotzen du
ez dugu hartzen
badakigu ez dugula hartu behar

lasterka dator bere gelatik
gure marimaestra
marrazkiloak egiteari utzita
—nik nik nik!

hartzen du —nor da?

ez du belarritik kentzen
hamar hamaika hamabi
ilundu du kopeta

uzten du bertan —zuretzako da

halakoa da mundua jendez
betea dago
zuri inoiz deituko ez dizun mundua
jendez betea dago

inoiz
deituko ez dizun jendez mundua

—ondo lotsatia daukazue alaba!

baina arrazoi duzu okerragoa da
mundutza txintxo
ezagutzen ez duzun mundutza hori
txintxo portatzen zaren galdezka
zure izenaren jabe

GALDERA POZOITUA

aulkia herrestan hurbildu
eta ni itzuli ez
aulki gainean zutik jartzeko lanak
eta ni isilik
borrero lotsatiaren hatsak
lepoan erre ez banindu bezala
beso bik hartzen didate burua
estaltzen dizkidate begiak

—nor naiz?

ez, urtaroak ez dira lau
bosgarrena galdu zaizu bidean
kopetilun
hortzustel
irrizoro
zakarripurdi
zeuk sortzen duzuna
sasoi guztiak batean egunero

—nor naiz?

eta ni izutua
azken oihua ahantzi egin duen
hilgaia bezain ezindua
lehenago iritsiko da izerdi hau zure eskuetara
erantzun egokia ezpainetan ageri baino

PENTAGRAMA

hauxe duzu dut
eta hauxe duzu dot
beste hau da det
eta honako hau berriz dit

—eta beste hau dat!

ez, hori duzu düt

—düt?

mündü huntan penarik gabetarik
bizitzeko nik ez düt perillik...

—eta dat?

dat, Mattin tarrat!

—ba oso gaizki kantatzen duzu!

...maitatü düt maiteko ez naiena
horrek baitereit bihotzean pena!

—oso oso gaizki kantatzen düzü!

POETAREN LANAK 1

aita, zergatik
behar dugu autoa?

ummm... autoa... ummm...
(bai!)

auzoko katuak azpian gorde daitezen
bai?
bai, auto azpiak
maite dituzte katuek

udan gerizpea behar dute
eta neguan
motorraren berora dira biltzen

(ufa!)

ama, autorik
ez zegoenean non
ezkutatzen ziren katuak?

ummm... autorik ez... ummm...
(bai!)

gurdien azpian,
gurdien azpiak
maite zituzten katuek

katuek ez dute nahi euritan
aterpea bilatzen dute...

(ufa!)

eta katurik
ez zegoenean nola
joaten zineten amona bisitatzera?

ummm... katurik ez... ummm....
(ez!)

zer ari zaigu...
zer ari zaigu endredamakila hau?

(bai zera!)

HORTZIKARAK

aharrausia egiten dugunean
gaua irensten dugu
eta izarrak trabatuta
geratzen zaizkigu txarrantxetan

zer pitokeria!
ahokoak ez dira izarrak
hortzak baizik!

horregatik egin behar izaten ditugu
bidaia interplanetarioak
txantxarrak hondatutakoa konpontzeko
hortzez hortz ortziraino

OTADIAN

nola ikusten ote du aurreko bidea
ipurtargiak?

noiztik bizi ote da alargun
amona mantangorria?

zergatik utzi ote zion landare izateari
basahuntzak?

nola harrapatu ote zuen halako zotina
matxinsaltoak?

zapela kenduta zer ageri ote du
zapelatzak?

nora ote doa udan
labezomorroa?

zergatik hil ote zuen kataluzea
katamotzak?

non galdu ote du haria
sorgin-orratzak?

zer lanbide ote du arra jaio den
erbinudeak?

non ezkutatzen ote du emea
azkonarrak?

noiz ikasi behar ote du hegan
kukusoak?

zergatik mozkortzen ote da
kakalardoa?

ez ote ditu inoiz lumak harrotzen
urzapalak?

noiz emanen ote du pot gozo bat
muxumartinak?

nola jaso ote zuen harria
trikuak?

BATETIK JAMAIKARA

jotzen duenean enbatak
garrazki laztantzen du kapitainaren bizarra
piru beltzak eta zuriak nahasiz

menditan harrotzen du lehen zena laua
alborik albo ostikoz darabiltza
sokak tangak lanbasak morse intziriak
egiten ditu mastetan ontzia kulunkatuz azpiratuz

noizean noiz ortziriak argitzen du gaua
eta orduan bedera-bedera atzimurtzi batean
izutzen ditu marinelak: haren atzamarraren marka
dakarte ontziak eta marinelek Jamaikatik

ESPALOIKO ISTRIPUA

—Txuri esaten diogu,
eta zuk nola duzu izena, panpox horrek?

nola duen izena
zenbat urte dituen
non bizi den
ama nongoa duen

eta gure alaba denari erantzuten
Txurirekin jolasten duen bitartean
ezin du txakur bat pasatzen utzi
deitu eta fandango batzuk eragin gabe

—nork prestatzen dizu gosaria?
eta dena kontatzen diola
Txurirekin jolasten duen bitartean
—gezur asko esaten dizkizu aitak, ezta?
elkarri behatzen diogu
irriño diplomatiko bana

gizendu egin da urteotan

politagoa dagoela esanen nuke
—ez didazu musu bat emanen?
niri beha, noski, baina alabari eske
—a, ba nik emanen dizut orduan!
hiru eman dizkio, masail berean
txipia, handia eta handi-handia

—goazen, Txuri, goazen!

ene...!

—ze txakur polita, e, aita?

ene...!
pekindar batekin dabil orain!

HAURREN MUNDURATZEA GURASOEI ESPLIKATUA

badakizu
izeba hezur berritan da
horrela esaten da
inor haur baten esperoan dagoenean
hezur berriak dauzka
horregatik hazten zaio tripa

—ez dut joan nahi!

badakizu
hezur berriak ditu
haurrarenak
horregatik hazi zaio tripa izebari
haurra daukalako barruan
laster lehengusu bat edukiko duzu

—ez dut joan nahi!

laztana
gaur azaltzekotan geratu ginen
afari goxoa prestatu digute
eta mahaian aspertzen zarenerako
hamsterrak erosi zituen
zu joaten zarenean haiekin jolasteko

—ez dut joan nahi, izebak jan eginen nau!

BASERRITAR LEGERA

patata egiteari utzi
eta hamaiketakoari ekin genion
hego haizea zebilen harro
zuk ogia ekarri zenuen
zu zeu ekarri ez bazintuen behintzat
lepoan osabak

—ekar ezazue eskopeta!

tiro batzuk jotzeko
kartutxo kaxa bat zeukan
dolare zaharreko zokoan
eta bere zorroan egoki
eskopeta goiko armairuan

—jakin dezatela inguruan
etxe honetan eskopeta daukagula!

eta handik laster auzoaren tiroak

—zer esan du aitonak?

eta perdigoien euria
baserriko teilatuan, aitonarenean

ETXE BAT

etxea egin liteke hatzez
egin liteke arkatzez
eta nahi izanez gero
egin liteke akatsez
edo gezaz edo gatzez
eta zokoak zikin nahi dituenak
egin lezake ikatzez
baina dena garbi nahi badu
egin dezala erratzez
(hautsa harrotuko baitu okerreko urratsez)
etxea egin liteke aurrez edo atzez
zuk egin zenezake arratsez

etxea egin liteke zotzez
egin liteke hotzez
eta nahi izanez gero
egin liteke zulotzez
edo pozez edo zipotzez
eta gerizpea nahi duenak
egin lezake laiotzez
baina guztizko bakea nahi badu

egin dezala izotzez
(lagunak izutzeko mutur zorrotzez)
etxea egin liteke luzez edo motzez
zuk egin zenezake bihotzez

etxea egin liteke putzez
egin liteke zaputzez
eta nahi izanez gero
egin liteke asmo hutsez
edo hontzez edo huntzez
eta teilaperik behar ez duenak
egin lezake bisutsez
baina izara garbiak maite baditu
egin dezala elurtzez
(ez luke aztarnarik utziko zimurtzez)
etxea egin liteke zorrotzez edo kamutsez
zuk egin zenezake masustez

etxea egin liteke pertzez
egin liteke aspertzez
eta nahi izanez gero
egin liteke ezin bertzez
edo erdiz edo ertzez
eta tristuran bizi nahi duenak

egin lezake beltzez
baina are tristeagoa nahi badu
egin dezala ezetzez
(eta bere burua gabez betetzez)
etxea egin liteke bakarrez edo jendetzez
zuk egin zenezake ametsez

etxea egin liteke litsez
egin liteke bitsez
eta nahi izanez gero
egin liteke banintzez
edo zitzez edo zipitzez
eta gotortasuna nahi duenak
egin lezake bortitzez
baina leihoduna izanen bada
egin beharko du ibiltzez
(oinetakoak burubako iltzez)
etxea egin liteke belarrez edo ihintzez
zuk egin zenezake hitzez
ederragoa da anitzez
zure hitzez
ate guztietako giltzez

IKASTEA ETA IKASTEA

nik irakatsiko dizut
atzekoz aurrera irakurtzen
Jamaikaraino zenbatzen
mihia ahosabaian plegatuta ziztu egiten
nik irakatsiko dizut
harri begidunak jaurtitzen
habiak ezkutatzen
zinezko gezurrak esaten

baina egun zoaz eskolara

nik irakatsiko dizut
esna zaudela hegaldatzen
putzu txipian itotzen
sagarrak eta sagarrak bereizten
nik irakatsiko dizut
azterketetan kopiatzen
tinta izerditzen
nire sinadura itxuratzen

baina egun zoaz eskolara

nik irakatsiko dizut
txoritan ibiltzen
jotzen duten doinuan ez dantzatzen
erreka jotzen
nik irakatsiko dizut
eiffel dorrea askatzen
lotsatu gabe galdetzen
ikasitakoa ahanzten

baina egun zoaz eskolara

nik irakatsiko dizut
berba zatarrak esaten
hormetan idazten
hanka platerean sartzen
nik irakatsiko dizut
iltzeak oker sartzen
eta zeure atzamarra mailuka lehertzen
nik irakatsiko dizut
ez dakidan gitarra jotzen
ni bezalakoa ez izaten
nik irakatsiko dizut
dena kolokan jartzen

baina egun zoaz eskolara

piper egiten
irakatsiko dizut bihar nik
Greziako uharteren batera joanen gara
eta Arkimederen teorema irakatsiko didazu zuk
arduragabekeria hutsean hondoratzen naizelarik

UR GAZIA ZARA

AITORPEN BELDURGARRIA

eskolan
mahai zaurituetan ginen denok

makilak moztu bezala
marrazten genuen:
amorruz beteta
eta labanaz

eskolan
mihia urdin genuen denok

diktadoan idatzi bezala
egiten genuen hitz:
txanpoiz beteta
eta erdaraz

ZEINEN GELA ZEKENA!

arbela ez da beltza
arbelaren goialdean ez dago gurutzerik
goizean ez duzue himnorik kantatzen
mahai handiaren gainean ez dago makilarik
ez Txinako fedegabeak salbatzeko itsulapikorik
biribilean jartzen zarete
elkarren ondoan neskak eta mutilak
elkarren aurrean
ez dituzue gaiak aho batez oihuka hartu behar
gogoan
hitz egiten ahal duzue
euskaraz hitz egiten ahal duzue
koloretako klarionak dauzkazue
ez daukazue koadro batetik zelatatzen zaituen
mustatxadunik
paretan zeuen marrazkiak daude itsatsiak
eta arratsaldean ere ez duzue himnorik kantatzen

baina saguak zer dio?

hogeita hamar irakasle txipi
maisu gaztea hezteko

sagurik ere ez daukazuela?

HIZKUNTZA IKASTEN

ahuntzaren gauerdiko eztula
kanpaijoleak ere lo egin behar duenez

ez bat eta ez bi
asko eta asko baizik

zenbat buru
hainbat arto

aho batez
zenbat aburu

begiz jo
eta bihotza hautsi

zakurraren biolina
katuaren marrua

atepeko hostoa
postontzirik ez dugulako

idiak baino lehen zintzarriak erosi
gurdiari lotzeko

gureak egin du
harro egotekoa da

ez bururik ez buztanik
antxoak oliotan bezala

hutsaren hurrengoa
azpitik ala gainetik?

idiak min gurdiak marru
horrela kexatzen da akuilua

hankak jaso
teilatua baino lehen

su txipian erre
baina ke handitan epeldu

zoaz antzarak ferratzera
adarra jotzeko mailuarekin

txapel batekin bi buru estali
edo buru bat bi txapelekin?

erreka joko dugu
nik pianoa bezala

barruak agintzen badizu
burujabe zara

KARRIKA NAGUSIKO FAROZAINA

—Zer ari zara, aita?
nori esan diozu eskerrik asko?
—horko gizon horri, Oihana
—zergatik?
—argiak piztuak neuzkalako
keinua
egin didalako

labe hoztua bezain iluna da
herriaren erdigunerako tunela
auto guztiek
argiak piztuta
pasatzen dute, eta Oihanaren aitari ere
ahaztu egin zaio
bere Opel Corsa zuriaren argiak itzaltzea

—lotan zaude, aita!
berdea daukagu!

badoazela, Oihanak
keinu egin duen
agureari
erreparatu dio:
espaloian gelditu da
bidea berriz gurutzatzeko bezala

zerbait ahaztuko zitzaion
etxera itzuli beharko du ostera
pentsatu du Oihanak

* * *

agureak karrika nagusiko zebrabidean
paseatzen du goizero
gero etxera joan eta egin duen lana
apuntatuko du
koaderno txipi batean

herenegun Mercedes zahar bat
azaldu zen begi-bakar
eta agureak keinu egin zien
barruko magrebiarrei
itzaltzeko
ertzainek isuna ezar ez ziezaieten

agureak karrika nagusiko zebrabidean
paseatzen du goizero
pauso-motx
hemendik hara
handik hona
espaloi batetik bestera

* * *

atzo zeharbidea egiten ari diren obratik
harkaitzez betea zetorren Isuzu erraldoiari
egin zion keinu
eta gidariak
itsasontzi batek bezalako
tutua jo zion
baina aurrera jarraitu zuen faroak itzali gabe

agureak karrika nagusiko zebrabidean
paseatzen du goizero
pauso-motx
aurrena ezkerreko autoei begira
eskuinekoei ondoren

* * *

gaur Opel Corsa zuri bat
gelditu da argiak piztuta
zebrabideko lehen ilaran...
eta hauxe apuntatu du agureak
bere koaderno txipian:
neskatoa begira gelditu zait
atzeko kristaleko pegatinen artean

itxi du koaderno txipia
medikuak debekatutako
zigarroa piztu du
eta kearekin batera:

jubilatua, ni?
ni... karrika nagusiko farozaina naiz!

eztula etorri zaio
eta harrika jaurti du zigarroa
eguraldiak zerbait freskatutakoan
arratsaldeetan ere
karrika nagusiko zebrabidean
paseatuko du

* * *

—hara, aita! keinua egin dizu gaur ere!
—ai, bai...! eskerrik asko, gizona!
—baina egunero zatoz berdin, aita!
—bai, ahaztu egiten zait
beti
argiak itzaltzea...

Oihanak hasperen egin du
amari ikasitakoa errepikatuz

—ai, aita... ze buru txarra daukazun!

eta aitak baietz esan dio gaur ere
ahaztu egiten zaiola
beti
argiak itzaltzea
esker oneko keinu bat
bihurtzen dion bitartean
gaur ere
karrika nagusiko farozainari

EUSKARAZ

entzunen duzu
antxetak euskaraz egiten duela txilio
Ziburuko kaian
entzunen duzu
ardiak euskaraz egiten duela marraka
Gorbeiako pentzeetan
entzunen duzu
katuak euskaraz egiten duela miauka
Aiherrako teilatuetan
entzunen duzu
idiak euskaraz egiten duela marru
Mendatako probalekuan
entzunen duzu
astoak euskaraz egiten duela arrantza
Gorostapoloko ferian
entzunen duzu
zakurrak euskaraz egiten duela adausi
Oñatiko artzanora txapelketan
entzunen duzu
basoilarrak euskaraz kantatzen duela
Iratiko basoan

entzunen duzu antxeta txilioka
entzunen duzu ardia marraka
entzunen duzu katua miauka
entzunen duzu idia marruka
entzunen duzu astoa arrantzaka
entzunen duzu zakurra adausika
entzunen duzu basoilarra kantari
baina euskaraz
zu zeu
izanen zara
xomorro xauxuna
txilioka marraka miauka marruka arrantzaka
adausika
zure buruari kantari
(edo munduko antxeta ardi katu idi asto zakur
basoilarrei)

LURRAREN IZANA

aspaldi ikasi genuen oinez
baina bidegurutzera heldutakoan marinelak gara
zorabioan
munduak ikara ematen digu
kulunkan
zure sehaskari eragiten genionean bezala

esan behar dizugun ez dizugun esan behar
lozuloan utzi behar zaitugun izarretara atera behar
zaitugun
irabioan
ez dakigu ongi ari garen hala bizi gara
kolokan
zure esne-hortzak bezala

bizia da harrotu egiten da ezin du baretu
apar batean biltzen gaitu
zuk bezala
eta batzuetan hila dirudi baina gero gainez egiten
digu

zuk bezala
gu bizi garen planeta
itsasoa da

lurraren lautik hiru
ur gazia zara

DENBORAREN BURUA

pizkorra bazara diozu
zapalduko ai! buztana
harriaren gainean dago
eguzkiari emana
zu emana zauden bezala
begi biak harengana
pizkorra bazara diozu
zapalduko ai! buztana

eskuan daukazu buztana
eta burua ai! burua
harriaren gainean eder
argiaren leinurua

METAFORAK

erraiak hustutako Vesubio
ilargiak behar duena letra bat osatzeko
osorik ezkutatu nahi zuen ostrukaren lepoa
banderarik behar ez duen masta
hildakoa kakazotz egiten bizitzari
herrenka dabilen hodeiaren oroigarria
senarrak tronpatu gabeko pagoa
(hau gerora ulertuko duzu)
adreiluzko Eiffel kohetea
hemeretzigarren mendeko menhirra
lehorreko Matzakuko farola
basamortu industrialeko kaktusa
metaforen meta-ziria
hori duzu eskola ondoko tximinia zaharra
eta
madarikazioaren Babel
(hau nahi baino lehen ulertuko duzu)
aspaldiko fabrika bateko nekeen irtenbidea
hori ere baduzu eskola ondoko tximinia zaharra
hortxe egon beharko du urteetan
lanak ditu
luze

IRAKASLEAREN SEXU HEZIKETA

aita lo dagoenean muxarrak ihes egiten dio
igeri joaten da amaren marmoxan gordetzen da
hantxe gelditzen da pegatxita marmoxaren mukian
eta goizean esnatzen denean aitak muxarra falta
amari kendu nahi dio baina ezin du
amak pegatxita daukalako muxarra marmoxan
eta orduan maitaketan hasten dira garrasika
bai bai bai maitaketa borroketa
egunen batean ohea apurtu behar dute askotan esan diet
muxarra marmoxatik ateratzeko borroka da maitaketa
eta nik hiruron gosaria prestatzen dut nekatuta etortzen baitira
aitak beti harrapatzen du muxarra ezagun du galtzetan
baina beti ez larunbat eta igande goizetan bakarrik
astegunetan ama goizean goiz jaikitzen da lanera joateko
eta lantegira eramaten du muxarra marmoxan

horregatik esnatzen da aita horren haserre astegunetan

astegunetan ezin du maitaketan inorekin egin

amak eraman duelako muxarra marmoxan

NOBLEZIA

amona beti etxekoandre
birramona gaztetan dendari
gero dendajabe alargunduaren emazte
eta haren lau seme-alaben ama
geroago alargun lau seme-alabekin
eta senarrak frontoian egindako
zorrekin
geroagogarrenean berriz alargun zazpi seme-
alabekin

aitona argizaina, hala esaten zioten
birraitona portuko zamaketari
birramonarekin ezkondu zen
besteren lau seme-alaba zituela
ez dakigu nongoa zen ez zeukan seniderik
ume abandonatuen fabrikatik jaso zuten
ez zekien irakurtzen
umetan morroi hartu zuten baserriak lur jo zuen
aspaldi

hortxe hasten da zure leinua
gailurreraino joan zintezke edozein adarretarik

PREMIÈRE LEÇON DE FRANÇAIS

ez zenekien?
poeta frantses guztiak Iruñean bizi dira
zein diren poetak?
poetak dira ilargiko kontuez arduratzen direnak

ilargi betea bezain betea dago
ilargia
hasperenez eraikitako zubiz
itxaropenez luzatutako karrikez
maiteminez zabaldutako plazaz
eta zubi karrika plaza guztietan
hasperenak zubipean triste itxaropenak zuhaitzetan
malko
maiteminduak aulki margotu berrietan itsatsita

bazenekien?
gizakia ilargira iritsi zen 1969an
zuk ken 15 urte zenituelarik
ez, ilargira iritsi zirenak ez ziren poetak izan

zer ekarri zuten ilargitik?
ez dakizu?
ezer ez

han ez omen zegoen inor atxilotzeko
han ez omen zegoen ezer lapurtzeko
han ez omen zegoen ezer ezer ezer
harri kozkor batzuk ekarri zituzten
bertan egonak zirela esateko

ilargiraino joan ziren
eta ez ziren ilargian egon
ez zutelako ezer hura ikusi
ez zutelako ezer hura entzun
ez zuten hemen ez dagoen ezer hura ekarri
eta hantxe dago oraindik
poetek bakarrik ikusten dakitena

horixe da ilargia
uharte bat iluntasunaren erdian
Iruñeari frantsesez kantari

ez zenekien?
frantsesez ilargiarekin koplatzen duen

munduko hiri bakarra Iruñea da!
horregatik bizi dira bertan poeta frantses guztiak
ilargirainoko bidaiak merketzen ez dituzten artean
oi Pampelune! oi Pampelune! hasperen eginik

nola?
poeta espainiarrak Adunan?
ez ez ez! Adunan ez dago poeta espainiarrik!
alde egin zuten
hodeiek ez omen zieten zerua ikusten uzten

gureak?
gure poetak
Errezilgo Ibarbian bizi dira, sagarrak jaten
ilargitarrak izateko
bai, halaxe uste dute, sagar handi bat dela
Ibarbiarekin koplatzen duen pobreon kriseilua

baina izan denak dira gureak
baldin eta ilargiari beha argitzen badira
hemen ez daukagun ezer handia betetzeko

APOLLINAIREREN OMENEZ

Zapia zen jausi
eta neuk nuen jaso
baina
jasogailua
zapia izan zen
jausiz jauzi
poema du josi

zapia zen hautsi
eta neuk nuen josi
baina
josigailua
zapia izan zen
hautsiz hautsi
poema du kausi

zapia zen auzi
eta neuk nuen kausi
baina
kausagailua
katua izan zen
xapiz xapi
poema du zati

ZAPATARIA ERREALISMOAN

—beha ezazu
atzo erosi nizkizun eta
aho zabalik daude!

—krokodiloa benetakoa duzu, anderea.

AITONA NUEN HILTZAILE

ilarra mahaira edo baba berria
eta amonak, esaterako, udaberri hobea
izanen ahal dugu aurten
eta zuk txoriak udaberrian ugaltzen dira

—txoriak? denak hilko balituzte!
—aitona, mesedez...! zergatik?
—lotsagabe horiek jaten dituzte hazi guztiak!

eskopeta ganbaran bere zorroan egoki

intxaurrondo zaharraren hostoak atepera
eta zuk udazkena heldu da
udazkenean erortzen dira zuhaitzen hostoak

—goizeko bostetarako hasi dira ehiztariak,
ez dugu puska batean bakerik edukiko!

orduan zuk ez pozik baina aitona poztearren

—txori guztiak hiltzen badituzte
datorren udaberrian ez dizkizute haziak jango!
—txoriak hil? ehiztariak akabatu behar lirateke!
—aitona, mesedez...!
—denak!
—baina... zergatik?
—lotsagabe horiek askatzen dituzte itxiturak
horiek dira landareak zapaltzen dituztenak!
denak akabatuko balituzte...!

eskopeta jaitsi kartutxoak sartu
eta banan bana eginarazten zigun tiro
aitonak urte zaharrez gauerdian
goiko aterki handira

horregatik dago zulotxoz betea
zozoak mokoka egindako piku beltza bezala

POETAREN LANAK 1001

—hara, eguzkia gorri...

bai, zigarroa erretzen ari da
(ea poema pedagogiko bat ateratzen zaidan?)

—hara, gaur dena lainotua...

eguzkiak sobera erre zuen atzo
gela ketan dauka oraindik
(horretan utziko dut)

—hara, eguzkia zuri...

gaur ez du erreko, ikasten ari da
(nazka ematen dit egia esan)
zatoz gerizpera!

IZUGARRIA

bizikleta batez
betaurrekoak egitea
ez da izugarri zaila

zailagoa da
betaurrekoak hankartean jarrita
orduko 20 km. egitea

baina benetan izugarria dena
pilak kenduta
gur birekin ibiltzea da

edo
betarik ez edukitzea
aurrekoa ikusteko

BEHIN BATEAN BIZI BAGINA

behin batean bizi bagina
zu nor izanen zinateke
Errauskine, Anbotoko Dama
ala hizketan dakien panpina?

behin batean bizi bagina
zu nor izanen zinateke
Herensuge, Pipi Langstrum
ala urrezko orrazidun lamina?

behin batean bizi bagina
zu nor izanen zinateke
Erreka Mari, Obelix, Heidi
ala pirata beltzen bergantina?

behin batean bizi bagina
zu nor izanen zinateke
Prakagorri, Edurne Zuri
ala beso bagako erregina?

behin batean bizi bagina
zu nor izanen zinateke
Txano Gorritxu, Totanka Yotanka
ala Otsokoren letagina?

behin batean bizi bagina
zu nor izanen zinateke
Zaloako katu baltza, Teo
ala gaiztoeneko gibelurdina?

behin batean bizi bagina
zu nor izanen zinateke
Doraemon, Jentilzuloko belea
ala lapurrak gordetzeko osina?

ni berriz akelarreetako printzea!
eta zu, zu nor izanen zinateke
behin batean bizi bagina?
...
ez haiz batere larri oraintxe, sorgina!

ARRANTZALE BERRIA

Zazpi itsasoetan barrena
ibiliak ziren oihuka
        hegaluzeak
        hegalaburrak
—euskaldunak datozela!

eta arrainek ihes egin zuten
        ez bermeotarrik
                ez ziburutarrik
                        ez pasaitarrik
azalduko ez zen ur beltzetara

sareak hutsik jasotzen zituzten
        gau eta egun
                egun eta biharamun

—zuloetarik ihes egiten dutelako da!

isiltzeko agindu zion patroiak
haserre begiratu zioten arrantzale zaharrek

—arrainek ez, hitzek egiten dute ihes!

hitzen arrantza egin behar zutela
esan zien
arrantzale berriak

—itsasoa hitzez betea dago!

ibili zarete inoiz hondartzan?
nola jaten dute uhinek
zure pausoen arrastoa?
ba berdin irensten ditu itsasoak
munduko hondartzetan idatzi ohi diren
egiluzeak
egilaburrak

—esadazue, zenbat maitasun hitz
ez ote ditu itsasoak bildu
munduko hondartzetarik?

ez zen bermeotarra
ez zen ziburutarra
ez zen pasaitarra...
berria zen ontzian

eta beti zauritzen zen amuak beitatzean

—munduak behar dituen hitz gozoak
eraman behar ditugu portura!

ez zen bermeotarra
ez zen ziburutarra
ez zen pasaitarra...
berria zen ontzian
eta zulorik gabeko sarea asmatu nahi zuen

—antxoak baino prezio hobea
eginen dute hitzok bentan...!

* * *

ez dizut esango ontziaren izena
portuan denek dakite
uretara bota zutela
arrantzale berria

hitzontzi hura

MUTILAK

mutilak horrelakoak dira
zabarrak alferrak traketsak
ongi ezagutzen ditut
beren zakilaren atzetik doaz datoz
erdi aroko zaldunak bezain
kontu miresgarriak entzun dituzte
eta uste dute neskek lapurtu nahi dieten
altxor bana daukatela hankartean

mutilak horrelakoak dira
ongi ezagutzen ditut
mehatxu txatxuak banatzen dituzte
zuen komunetan sartzen dira
marrazki zatarrak egiteko
eta balentria handi bat burutu balute bezala
egiten dute irri gero ihesi zoroan
ez diote begirik elkarri ez lotsatzearren

mutilak horrelakoak dira
ongi ezagutzen ditut
futbolean aritzen dira panpina buruekin

borroka egin behar dute beren artean
buruzagi anker baten bila dabiltza
letra txarra eskuak zikin galtzak arrastaka
harrotu egiten dira errieta emanda
zabarrak izan nahi dute alferrak traketsak

mutilak horrelakoak dira
ongi ezagutzen ditut
neska entzun eta goitikoa etortzen zaie
beldur dira hitz samurrak ahotan hartzeko
eta burla egiten dizuete
ankerrak dira baina sufritu egiten dutelako da
sekretuz beteak zaudetela ikasi dute
sumatzen hasiak dira erdi arokoak direla

mutilak horrelakoak dira
ongi ezagutzen ditut
zabarrak alferrak izan nahi lukete traketsak
sinets egidazu
banaka neskak bezalakoak dira
baina ez dute bakarrik nahi
taldean behar dute ikara batean bizi dira
kausarik gabeko zaldunak balira bezala

neskak horrelakoak zarete
ergelak mengelak marigelak
sinets egidazu
ongi ezagutzen zaituztet
gure zakil gainean hankalatraba
buruzagi ankerrenaren esanetara
zuei burlaka bazterretan ni eta nire koadrila
sinets egidazu mutilak horrelakoak gara

INTIMA CHERRY

egunsentia harro dator
ekia eta ilaskia batean

HISTORIA
ETA GEOGRAFIA

Maracaibo Pireo Vladivostok
Rotterdam New York Alexandria
nongo portutik sortu ote da
bahituko nauen ontzi pirata?

Andeetako malutak Gobiko harea
Etiopiako kakao eta Alaskako urre bihiak
ba ote dauka munduak
ene zilkoak merezi duen beste?

Romeo Osiris Mahoma
Marco Antonio Don Juan Adonis
zenbat maitale koitadu
ez ote dut behartuko zainak epaitzera?

Konstantinopla Paris Iruñea
Erroma Damasco Cuzco Granada
erresuma guztiek joko dute lur
nire ispiluaren altxorrarengatik

GEREZI ALDIA

amaitu dira hartzatxo urdina
eta lo hartu aurreko ipuina

hiltzaile heldu zen lehen zigarroa
gorpu kirastu bat da haurtzaroa

bahituak dauzkagu ispiluak
nire burua har dezala katiluak

armairuko gitarra bezain mutu
behar ditut ez egitekoak burutu

hau da inoren gordina ezin ikusia
orain debekatua dut biluzia

ateak ixteko daude etxean orain
eta galdera guztiak ditu irain

zorro itxian heldu da gutuna
emazte berriaren gorritasuna

emazte berriaren gorritasuna
gaurgero hezurgai den nitazuna

LASTER GURE ALABA ZU BEZALAKOA IZANEN DA

ZU JAIA ZINENEAN

Zu jaia zinenean
ez nuen zapi gorririk lotu lepoan
zu jaia zinenean
zortziko txiki bat ziztukatuz
jaitsi nintzen oinez ospitaletik hirira
ez nuen autobusa hartu
oinez jarraitu nuen etxerantz
ama eta biok gauean etorriak ginen 4L berdea
espaloiaren gainean utzia nuela ahaztuta
zu jaia zinenean
ez nuen ezein ziririkuren zapartik entzun
langile menua bazkaldu nuen auzoko tabernan
zigarro bat erre nuen teleberrien aurrean
ez nuen besterik ulertu bizitza batekoz bestera
etxera iritsitakoan etzan egin nintzen
baina ezin izan nuen lo hartu
egin beharrekoen zerrenda osatu nuen
eten egin nuen telefonoa
sukaldea garbitu nuen ohea bere zoroan utzi
ez nuen libururik ukitu ez nuen deus idatzi
dutxatu egin nintzen arropa aldatu nuen

ilunabarrean ospitalera abiatu nintzen oinez
zortziko txiki bat ziztukatuz
espaloia libre zegoen autoa garabiak eramana zen
eta neure artean inporta zaidak esanez
bonboi kaxa batekin sartu nintzen ospitalean
zu jaia zinenean
festa handia antolatu genuelako

NONGO TXORI

Orhiko txoriak Orhi du laket
hauxe omen da egia
sudur ondoan begia
nik gezur berriak asma ditzaket

Orhiko txoria Orhin da itun
adar batetik bestera
kantuz kantu baso bera
libertate motza beti da aizun

Orhiko txoria Orhin da gogait
elurra dator gesala
zure tristura bezala
zauria kantuan gaiztotuko zait

Orhiko txoriak hori hastio
aireko ez bada, esan
zertarako daki hegan?
betiko egiak gezurra dio

aireko txoriak mundua du haizu
hauxe bai dela egia
rimmel ertzean begia
grina eder horrek galduko zaitu
grina gaizto horrek sortuko zaitu

MIN

atzo nasa zaharrean ibili nintzen
lanaren lurrinetan hordi
konpontzen ari diren baforeak ikusten

kalamuzko estatxa higatu batean egin nuen
behaztopa
texaco barril hutsen artean

zenbat esku jatorrek estekatuko zuten
zenbat kresalek erreko
zenbat sortidatan zuen nasako bita abandonatuko

mareajea gora zen eta laño
ferry baten bila abiatu zen atoiontzia
trena azaldu zen urrun bere ziztuari segika

atzo nasa zaharrean ibili nintzen
neure gaztetan hordi
eta ez nuen pentsatu zutan
eta ez nuen pentsatu zutan besterik

DEUXIÈME LEÇON DE FRANÇAIS

ilargiaren biluziak
bizi ditu

emazte biluziaren argiak
itsututa bezala

emazte biluziaren argiak
edertuta bezala

emazte biluziaren ederrak
argituta bezala

bizi ditu
ilargiaren lubiziak

ZUBIAN

maite zaituela
erotzeraino maite zaituela
zuregatik zernahi eginen lukeela esaten dizunari
ez iezaiozu eska
bere buruaz beste egin dezala

bere burua botako du
eta bestetua altxatuko da
abiatuko da
zernahi eginen lukeela
erotzeraino maite duela
bere buruaz beste eginen duela
esanen dio zu ez beste inori

ez iezaiozu eska
bere buruaz beste egin dezala
zuregatik zernahi eginen lukeela esaten dizunari
egin eginen du
benetan ari naiz frogak dauzkat
neure hogeigarren bestea naiz ni

PROMENADA

galde lasai, eska iezadazu
nahi duzuna
erantzunen bat asmatuko dut
gezurrik esan gabe
ibili okerrak egina naiz
zaildu naute gurasoak Olentzero dela entzuteko

galde lasai, eska iezadazu
nahi duzuna
eraztunen bat asmatuko dut
gezurrik esan gabe
lepondoko batzuk hartua naiz
zaildu naute arrosak odolduak daudela entzuteko

galde lasai, eska iezadazu
nahi duzuna
orrazturen bat asmatuko dut
gezurrik esan gabe
liburu batzuk irakurria naiz
zaildu naute bizitza zikin zaizula entzuteko

galde lasai, eska iezadazu
nahi duzuna
errazturen bat asmatuko dut
gezurrik esan gabe
zer edo zer bizitakoa naiz
zaildu naute maitasuna hodei bat dela entzuteko

galde lasai, eska iezadazu
gezurrik esan gabe
urraturen bat asmatuko dut
nahi duzuna
negar batzuk egina naiz
zaildu naute gezurretan bizi garela entzuteko

KAPITALISTA HAIKU BATEAN

kukuaren hotsa
eta nik eskua...
non gorde duk lotsa?

ESKUZ ESKU

jadanik ez goaz karrikan eskuz esku
lagunik ederrenak ginenean bezala
jadanik ez zara aitatxoren alaba

jadanik ez goaz karrikan eskuz esku
mahatsak hartu du heineko hartzidura
edertu da bitan bat omen ginen hura

jadanik ez goaz karrikan eskuz esku
bihurtua zara eder triste nerabe
jadanik zeu zoaz ene beharrik gabe

jadanik ez goaz karrikan eskuz esku
heldu da heldu behar zuen haustea
beste esku batek helduko du zeurea

jadanik ez goaz karrikan eskuz esku
baina eskuz esku gara berriz karrikan
luze gabe joanen haizearen irrikan

eskuz esku joanen gara berriz karrikan
zu eta biok eta hirurok eta
aldarri ederrez eta bihotz garbitan

AMARAUNA

Munduan beste batzuk bezala, bada bidaiari bat, errekardari bat, bost kontinenteetako poliziak aztoratuta dauzkana.

Heldu da Bamakora, eta Kome hotelean egin du galde:

—Baduzue gelarik, mesedez?

—Dutxa daukana nahi duzu? —galdetu dio praktiketan den turismoko ikasleak.

—Dutxa baino, nahiago zorriren bat edukitzea.

—Zorriak hemen?

Ofenditu egin da turismoko ikaslea, baina irakatsia dioten bezalako adeitasuna erakutsi du.

—Hemen ez daukagu horrelako gelarik, jauna —erantzun dio, pentsatuz bidaiari hau kategoria gutxikoa dela bere hotelerako.

Eta berdin gertatu zaio kontinenteko ostatu guztietan.

Azkenik basamortuan egin behar izan du lo *Euphorbia balsamifera* baten ondoan, zorriz estalia.

Baina ez da hori gure bidaiariak behar zuena.

Hurrengo egunean, Afrikako polizia telefonoz: «Asiarako ontziratu da!»

Heldu da Hanoira, eta Thuy Nga hotelean egin du galde:

—Kaixo, baduzue gelarik?

—Baditugu ohe bakarreko gelak, eta baditugu ohe biko gelak. Nolakoa nahi zenuke? —galdetu dio kontserje zaharrak.

—Arkakusoren bat daukana nahi nuke.

—Arkakusoak hemen?

Haserre begiratu dio kontserje zaharrak begien irrikituetatik.

—Hemen ez daukagu horrelako gelarik, jauna —erantzun dio, pentsatuz turista honek iseka egin nahi diola bere herriari.

Eta erantzun bera kontinenteko ostatu guztietan.

Azkenik tigreen habia batean egin behar izan du lo, arkakusoz estalia.

Baina ez zen hori gure bidaiariak behar zuena.

Hurrengo egunean, Asiako polizia telegrafoz: «Erne Europa, horra doa!»

Heldu da Helsinkira, eta Scandic Kalastajatroppa hotelean egin du galde:

—Kaixo, baduzue gelarik?

—Suit nagusia bakarrik daukagu libre, jauna —erantzun dio harrerako emakume ile-horiak—, garestiena da.

—Ez du axola, pozik ordainduko dut inurriren bat baldin badauka.

—Inurriak hemen?

Laztu egin zaizkio ileak harrerako emakumeari, bidaiari hau zoro arriskutsuren bat dela pentsatuz.

—Hemen ez daukagu horrelako gelarik, jauna —erantzun dio, seguritateko guardaren zenbakia jotzen duela.

Eta halaxe bota dute kontinenteko ostatu guztietatik.

Azkenik itsasontzi abandonatu batean egin du lo gure bidaiariak, inurriek estalia.

Baina ez zen hori gure bidaiariak behar zuena.

Hurrengo egunean, Europako polizia Outlook Express-etik: «Ozeania arriskuan, Ozeania arriskuan!»

Heldu da Pago Pagora, eta Seipepa hotelean egin du galde:

—Gela bat, otoi...

—Telebistaduna, ezta? —galdetu dio hotelaren jabearen semeak.

—Hobe labezomorroduna.

—Labezomorroak hemen?

Urduri jarri da jabearen semea.

—Hemen ez daukagu horrelako gelarik, jauna — erantzun dio, turista faltsu hau higieneko inspektorea dela pentsatuz.

Eta logela jator baten bila dabilen gure bidaiariak ez du aurkitu gelarik kontinenteko ostatu guztietan.

Azkenik labezomorroek hartua dutelako inor ibiltzen ez den parke batean egin du lo.

Baina ez zen hori gure bidaiariak behar zuena.

Eta hurrengo egunean Ozeaniako polizia uso mezulariez: «Kontuz Ameriketako aireportuak!»

Heldu da Guanajuatora, eta Tlalnepantla hotelean egin du galde:

—Baduzue gelarik, mesedez?

—Bakarra daukat libre, baina ezin dizut eman — esan dio tristerik garbitzailearen senarrak.

—Ez? Zer ba?

—Gaur ez dute gela hori garbitu eta...

Nolako poza hartu duen gure bidaiariak hori entzundakoan!

—Zorriak al dauzka, edo arkakusoak, edo inurriak, edo labezomorroak? Horixe da nik behar dudan gela!

—Ez jauna, gela horretan ez dago ez zorririk, ez arkakusorik, ez inurririk, ez labezomorrorik... Armiarma bat dago sabaitik zintzilik!

—Armiarma bat? —pozak zoratzen dago gure bidaiaria.

—Bai jauna, sentitzen dut benetan! —erantzun dio armiarmek ikara ematen dioten garbitzailearen senarrak.

Besoetatik heldu dio bidaiariak, oihu batean:

—Entzun, ostalari jauna: munduko bazter guztiak harrotu ditut horrelako gela baten bila! Horixe da nik behar dudan gela!

«Gero eta kapritxo bereziagoak dauzkate turistek», Guanajuatoko ostalariak bere artean, garbitu gabeko gelaren giltza bilatzen duela.

* * *

Noizbait!

Armiarma txipi bat gela txipi bateko sabaitik zintzilik!

Honela esan dio gure bidaiariak armiarmari, ohe gainean etzanda:

—Esadazu, armiarma, esadazu... zer moduz daude lagunak?

Baina armiarmak erantzun baino lehen ametsetan sartu da gure bidaiaria: presondegian dago, zigor ziegan daukate isolatua urte beterako eta lagun egitera datozkio zorria arkakusoa inurria labezomorroa...

* * *

Eta bitartean, Interpoleko inspektorerik zorrotzenak elkarri galdezka:

—Zertan ote dabil gizon hori bost kontinenteetan barrena?

Horixe jakin nahi dute mundu osoko poliziek...

Eta ez dute inoiz jakinen!

ABERRIA ZER DEN

aspaldi, txipia zinelarik
Orhiko gailurrean

—zera... Orhiko gailurrean... zu?

oker egon ninteke
Mendaurren izan zitekeen
edo Gorbeian
beharbada Aizkorrin

—hobe Larrunen.

a, bai! ados, ez naiz gaitzituko
Larrunera heldu ginen hartan
trenez, jakina, trenez, ezta?

—baditugu argazkiak.

gailurrean zutik
besoa zabaldu eta itzuli osoa eginik
Landetarainoko lurrak, Pirinioak, Matzakuko farola,

itsaso eta lehor, ipar eta hego harturik
hauxe esan nizun espantu antzean:
«alaba, ikusten duzun hau dena
gurea da, baina ez da gurea!»

—lurrak ez du jabegorik behar!

horixe esan nahi nizun
gurea izan arren gurea ez zelako horrekin

—ez, zuk beste zerbait esan nahi zenuen!

ekar itzazu argazki horiek
segur naiz negua zela eta ez zegoela trenik!

AULKI HUTSA

ez nion jaramonik egiten leihoan jotzen zuen paisaiari
nahikoa lan neukan irakurketa eten gabe jarraitzen
badakizu zeinen dibertigarriak diren gure trenak
ez zitzaizkidan asko ardura sanjose loreak eta mimosak
edo atzekoen solasa eta aitzinean neukan aulki hutsa

kaixo esan zidan edo hala esan zidala idazten dut orain
jaso nuen burua liburutik eta liburua burutik joan zitzaidan
kendu nizkien begiak hitzei eta bekoz beko neukan gazteari
nizkion eman
baina neskak ez zidan behatzen liburu bat aterea zuen
eta hari ere ez zitzaizkion ardura ez gure mendiak ez ni

laster gure alaba zu bezalakoa izanen da pentsatu nuen
neska polita zen eta begietan bizkorraren distira zeukan
nik begiak ikusten ez nizkion arren banekien bazekiela
begiekin barre egiten gure alabak egiten dakien bezala
laster gure alaba zu bezalakoa izanen da pentsatu nuen

itxi zuen liburua aharrausi egin zuen altxa egin zen
adio esan zidan edo hala esan zidala idazten dut orain
Zumaia zioen geltoki batean jaitsi zen ziur nago
badagoela herri bat Zumaia izenekoa nonbait
eta perfekzio guztiak eman nizkion neska bat munduan

neska munduan ezkutatu zen eta trenak aurrera jo zuen
ez dakit zergatik gelditu nintzen aitzineko aulki hutsari beha
laster gure alaba gazte hura izanen zela pentsatuz

munduan beti egonen da maite duguna oroitaraziko digun zerbait

garamatzan trena adibidez aulki huts batekin gure aitzinean

BAT BALETOZ

bideak, egia esan, ez datoz bat
badira makila behar dutenak
badira jo egiten zaituztenak
batzuk ukondoka egitekoak dira
besteak berriz aztalka
lanak ematen dizkigute
baina bidelanak ez dira beti lanbideak
ez datoz bat eta nahaste handian bizi gara
bidea dela bide
libreak garela entzun ohi dugu
bideari lotzen garen aldiro

eskubideak daude burubideak daude
ez dira gauza bera
lehenek eskuak garbitzen dituzte
hanka egiten dutenak ez hartzeko
bigarrenek ez dute hankapean bizi nahi
galbidera eramaten ahal zaituzte

helburuek ez dute ontzen bidearen okerra
baina, egia esan, bideak badaki
bere burua garbitzen
hankatik heldu buruz behera ipini
lanbasa balitz bezala
eta arrastoak ezaba ditzagula eskatzen digu

galdeiozu bideari nora doan
joan eta bertara erantzuna
bidea ez doa
ez daki oinez ez daki hegan ez daki igeri
baina badaki bidean ibili egiten dela
ez joan ez etorri
eta bidean dena noraezean dabilela
horregatik heltzen da hain urrun bidegabea

bidegurutzera iritsiko zara
eta ez dizu lagunduko
nora gabeak dira bideak nondik gabeak
edonorako zernahitarako ematen digute bide
eta beti da bidean bidezkoa ez dena
nik ez nuke bide batez ez erdibidez eginen bidea
baizik eta bide den bezala

bideak bat baletoz
egia esan
ez ligukete emanen gramatika arazo bat besterik
baldin eta bideek berez
etorri ez ezik
eman ere ezer emanen balute
bide guztiak baitira hilak
zu bideratu arte

PRENNEZ GARDE À LA FERMETURE AUTOMATIQUE DES PORTES

ez doa oso urrun ere, bost ordu barru
telefono dei bat hartuko dugu hango geltokitik
onik iritsia dela esanez
alegia, trenak ez duela ezustekorik egin
baina halako hustasun bat
hango geltokitik etxera hogei frantses
magrebiar jatorriko, lau buhame
hamalau arabe, hamazazpi senegaldar
zortzi bolikostar, hiru ganbiar, maliar bi
eta zuztarreko zazpi frantses zeken
gurutzatuko ditu argirik ez daukan
rue de la chaine estuan barrena
hain zurbil, hain ahul, maleta astun bat herrestan
eta CRSak auzoan azaldu ez badira behintzat
Rashidengana jaitsiko da maleta utzi ondoren
behar bezalako mentazko te bat hartzera
Jean Christopheren lauta entzun bitartean

trenbideetako onikirten bat bezala
haserre dabil aspaldion xeminoen sindikatu gorriarekin
eta hala ere ukabila estututa despeditzen dugu
nasan, xeminoek begia kliskatzen digutelarik
vigie pirate planeko armadunak gutaz trufaka beren artean
barre egiten digu aulkitik
komunistak ahul daude auzo hartan
ateen automatismoaz bakarrik arduratzen dira

HILBURUKO PREBENTIBOA

noizbait
azkazal akasturik berriro jantzi nahi ez duzulako
sekula urtzen ez den hodeiak astun zanpatzen zaituelako
piano baten laka baino ilunagorik ikusi ezin duzulako
edo bizitzaren ankerrak
muzin egiten ahal ez omen diogun
kontratu ospetsu hori eskaini dizulako
edo besterik gabe
galtzaileen erromerietan aspertu egin zarelako

noizbait
lotsa oneko arrazoi horietakoren batengatik
erabakitzen baldin baduzu
oker geundela poesia gehiegi zegoela
ametsetara eraman genituen afalondoetan
urrunegi dagoela altxorrik gabeko urrezko uhartea
edo besterik gabe

zuhurtziak agintzen duen moduan garaietara
egokitzea
erabakitzen baldin baduzu

noizbait
erabakitzen baldin baduzu
ahalegin sobera egina zaudela
ederragoa izanen zarela amore emanda

otoi
ez dadila izan hilik nagoen gauean

ez dut maite ezjakinaren bake ustela
nahiago nuke neure gain hartu
zure erabakian legokidakeen erantzukizun zatia
otoi
ez iezadazula uka
borrokagai berriak edukitzeko aukera
ez iezadazula uka mesedez
bizirik jarrai dezadan erabakiko zenukeela asmatuz
bihotzikara eztitzeko aukera

HEGAN

kukuprakak jantzi
zozomikotetan bizi
pikuokerrak janez
pagausoaren errotan
lorabatzaile
ur-makinista
oilagorra bezain erne
argioilarra bezain motz
txorimaloaren pazientziaz
urretxindorraren distirari muzin eginda
buztanikara batean
papogorriei botoa eman
eta eper handi bat harrapatu ez?
arranopola!